



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 188. INFORMAZIO BULETINA

2023ko uztaila eta abuztua



Europar Batasunak  
kofinantzatua

Cofinanciado por  
la Union Europea



2023ko uztaila eta abuztua

## ALBISTEAK

### #EuropaSentitzenDa proiektu lehiaketaren finalerdiak ospatu dira.

**Proiektuen lehen hautaketaren ondoren, lehiaketaren sei finalerdiak deitu dira, kategoria bakoitzeko bana.**

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Europako Funtzen Zuzendaritza Nagusiak Europako Funtzen Urteko Komunikazio Lehiaketa antolatu du aurten ere. Lehiaketaren helburua da Europako funtsek Espainian ematen duten laguntzaren emaitzei eta balio erantsiari buruz herritarrak gehiago kontzientziatzea eta ikusaraztea.

Sei parte-hartze kategoria ezarri dira: lehiakorra, berdea, soziala, konektatua, hurbilekoa eta Europak mugitzen zaitu.

Lehiaketa 3 fasetan egituratzen da, lehen fasea gaindu dituzten proiektuak finalurrekoan hartu dute parte. Saiok online izan dira.

Lehiaketaren azken fasea 2023ko irailaren 22an, ostirala, izango da Vilagarcía de Arousako (Pontevedra) auditorioan, 2023ko Urteko Komunikazio Ekitaldiaren barruan.

### Ibai-ibilguak lehengoratzeko hainbat obra abian.

**Proiektuak Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko ditu.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak ibaia lehengoratzeko obra batzuk hasi ditu, 2020-2035 aldirako Oztopoak Iragazkortzeko Plan Zuzentzailean jasotakoak.

Zehazki:

- Sarobe errekan, Oiartzun, Zulotibar presa txikiaren eraisketa eta Molino Txalaka presa txikiaren iragazkortzea.

Aurrekontu osoa Presupuesto total	98.400 €
EBren finantzaketa Financiación de la UE	39.200€

**IBAIEN LEHENAGORATZEA  
RESTAURACIÓN FLUVIAL**

OBRA: IBAIEN MICHELIN 1, MICHELIN 2 ETA ASTEASUANZARRA PRESA TXIKIEN ERAISKETA PROIEKTUA (LAGARTE-ORRIA ETA USURBEL).  
PROYECTO DE DEMOLICIÓN DE LOS AZUDES MICHELIN 1, MICHELIN 2 Y ASTEASUANZARRA EN EL RÍO ORRIA (LAGARTE-ORRIA Y USURBEL)

Cofinanciado por la Unión Europea

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



### 2023ko uztaila eta abuztua

- Oria Ibaian Michelin 1, Michelin 2 eta Asteasuainzarra presa txikiaren eraisketa (Lasarte-Oria eta Usurbil).



Zulotibar Aurrekontua Presupuesto Zulotibar	55.600€	<b>IBAIEN LEHENAGORATZEA RESTAURACIÓN FLUVIAL</b> SARORE ERREKIAN, OIAETZIN, ZULOTIBAR PRESA TXIKIAREN ERABERETA ETA MOINOI TALAKA PRESAN TOKIAREN IRAGAZKORTZEKO PROIEKTUA PROYECTO DE DEMOLICIÓN DEL AZUD ZULOTIBAR Y DE REHABILITACIÓN DEL AZUD DEL MOINOI TALAKA EN LA REGATA SARORE, OIAETZIN
EBren finantzaketa Financiación de la UE	22.240€	

Cofinanciado por la Unión Europea

Era berean, laster Eztanda eta Alkiza (Oria Ibaia) eta Otaola eta Granadaerreka (Urola Ibaia) arroetako oztopo txikiak eraisteko obrak hasiko dira.

Obra horien guztizko inbertsioa 426.800 eurokoa da.

Jarduera horiek guztiak Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak kofinantzatuko ditu, 2.7 helburu espezifikorekin: "natura, biodibertsitatea eta azpiegitura ekologikoak (edo berdeak) babestea eta sustatzea, baita hiri-eremuetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea".

**Informazio gehiago:** ["Obra Hidraulietako" webgunea.](#)

### 24 orduko arreta integraleko zentro gisa prozedura irekiaren bidez bi lokal erosteko kontratazioa egiteko deialdia.

**Zentro horiek laguntza psikologikoa, juridikoa eta soziala emango diete sexu-indarkeriaren biktimei, senideei eta inguruko pertsoneri.**

**Abuztuaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (163.zk)** argitaratu da deialdia jabari osoan eskuratzeko hirugarren sektoreko erabilerako bi lokal, 24 orduz arreta integrala emateko. Lokal horiek kokatuko dira Donostian (1. Lotea) eta Lurralde Historikoaren Hego-Ekialdean (2. Lotea, Beasain, Ordizia/Lazkao, Tolosa).

Higiezinak eskuratzeko sartzen da Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 22. osagaiko C22.I4 neurrian («Zainketen ekonomiarako eta berdintasun eta inklusio politikak indartzeko talka plana»). Erosketa Europako funtsekin finantzatuko da, aipatutako plan horren barruan.

**Informazio gehiago:** [Kontratazio Plataforma.](#)



2023ko uztaila eta abuztua

## EUROPAKO DEIALDIAK

### **NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK**

*Kredituak autonomia-erkidegoei modu eraginkorrean banatzea erabaki da, eta 2023ko maiatzaren 9ko Turismoaren Sektoreko Konferentziaren Akordiotik eratorritako finantzakontpromisoak formalizatu dira. Akordio horren bidez, banaketa-irizpideak ezarri ziren, bai eta 2023ko ekitaldirako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiaren (1. inbertsioa) esparruan toki-erakundeek inbertsio-jarduerak finantzatzera bideratutako kreditua autonomia-erkidegoentzat nola banatuko den ere.*

*Energia berriztagarrietatik abiatuta elektrizitatea eta beroa ekoizteko proiektuetarako pizgarrien programaren lehen deialdia egin da, erregai fosiletatik abiatuta ekoizpena ordeztzeko, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 15eko 14:00etan amaituko da.*

*Mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarrien programaren deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoen bigarren gehikuntza erabakitzen da, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan -NextGenerationEU- (Moves III programa), baita 2021eko uztailaren 5eko Ebazpenaren laugarren aldaketa egiten duena ere, mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituen, Europar Batasunak finantzatutako –NextGenerationEU-, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Moves III programa).*

*Kirol-turismo iraunkorra sustatzen duten kirol-instalazioak eta -espazioak hobetzeko eta optimizatzeko azpiegituren erakunde publiko titularrei laguntzak emateko deialdia egiten da, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Europako funtsen kargura.*

*Energia biltegitratzeko proiektu berritzaileei laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dira, Europar Batasunak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.*

*«Administrazio publikoetako lehen esperientzia profesionaleko programa» finantzatzeko dirulaguntzak emateko eta justifikatzeko moduluen araubidea eguneratu eta kuantifikatu da.*

*Ibilgailu arinen flotak elektrifikatzeko proiektuetarako pizgarrien programaren hirugarren deialdia egin da (MOVES FLOTAS PROGRAMA), Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan - NextGenerationEU. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 12ko 9:00etan hasiko da, eta 2023ko urriaren 18ko 14:00etan amaituko..*



### 2023ko uztaila eta abuztua

**Biltegitratze elektriko independenteko eta biltegitratze termikoko proiektu berritzaileetarako laguntzen deialdia onartu da, Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan – NextGenerationEU.** Eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 22an hasiko da eta 2023ko urriaren 20ko 14:00etan amaituko da.

**Ponpaketa itzulgarri bidez biltegitratzeko proiektu berritzaileetarako laguntzen deialdia onartu da, Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan - NextGenerationEU.** Eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 22an hasiko da eta 2023ko urriaren 20ko 14:00etan amaituko da.

**Bigarren deialdia onartu da: "4. Pizgarrien Programa: oinarritzko eta oinarritzko ikerketako erronkak, pilotu berritzaileak eta teknologia gaitzaile giltzarrietako prestakuntza", EB-NextGenerationEU finantzaturako PRTR esparruan hidrogeno berriztagarriaren ezagutza- eta balio-kate berritzailea sustatzeko programen deialdia.** Eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 8an hasiko da eta 2023ko azaroaren 7ko 17:00etan amaituko da.

**Hutsen zuzenketa, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2023ko uztailaren 20koa, E.P.E. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) Administrazio Kontseiluarena, ponpaketa itzulgarri bidez biltegitratzeko proiektu berritzaileetarako laguntzen deialdia onartzen duena, Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Transformazio eta Erresilientzia Planaren (NextGenerationEU) esparruan.**

**Hutsen zuzenketa, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2023ko uztailaren 20koa, E.P.E. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) Administrazio Kontseiluarena, NextGenerationEU-Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan biltegitratze elektriko independentea eta biltegitratze termikoa egiteko proiektu berritzaileetarako laguntzen deialdia onartzen duena.**

**Uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dira, bai eta dirulaguntzen lehen deialdia ere (2022), uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuen norgehiagoka bidez (uraren zikloaren digitalizazioa), Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan; eta dirulaguntzen bigarren deialdia onartzen da (2023).** Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 30ean hasiko da eta 2023ko abenduaren 14an amaituko da.

**Irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduaren bidez deitutako dirulaguntzak emateko ebazpen-epea luzatu egiten da. Agindu horren bidez, batetik, uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dira, eta, bestetik, uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuen lehiarako dirulaguntzen lehen deialdia (2022) (uraren zikloaren digitalizazioa), Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.** Eskaerak aurkezteko epea 2023ko azaroaren 10era arte luzatzen da.



2023ko uztaila eta abuztua

## BESTE DEIALDIAK

LIFE programa ingurumenerako eta klimaren aldeko ekintzarako. Jardunbide egokiak hedatzea.

- [LIFE-2023-TA-R-NAT-ENV](#). Ekimen arrakastatsuek errepikatze (edo eskalatzeko) laguntza teknikorako deialdia. Naturari, biodibertsitateari, ekonomia zirkularrari eta bizi-kalitateari buruzko gaiak, besteak beste.

Europa Sortzailea programa (CREA). Baliabideen atala (MEDIA). CINNET deialdia, Europako zinema-sareak dinamizatzeko.

- [CREA-MEDIA-2023-CINNET](#). Europako zinema-sareen dinamizazioa.

Horizon Europe berrikuntzako esparru-programa.

- [Emakumeen berrikuntza manufaktura-industrian](#). HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EIMANUFACTURING. Fabrikazioko berrikuntzetan emakumeari laguntzeko programa, EITren Berrikuntzako Eskualde Eskemaren eremuan (RIS), Europako Teknologia Institutuaren Manufaktura atalaren eskutik, bai eta beren KICen (Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateen) eta EITren 2023-25 planaren esparruetan. RIS Eskemak EBko eta inguruko herrialdeak hartzen ditu, aurreratuenak izan ezik.
- [EOSC Future](#). Zientzia Irekieraren Europako Hodeia. INFRAEOSC-03-2020. EOSC-en (Zientzia Irekiaren Europako Hodeiaren) azpiegiturretan eta bere RDAn (Ikerketa Datuen Aliantzan) kanpo-ebaluatzaileek parte hartzeko deialdia.
- [ICAERUS PUSH](#). Dronei eta horien aplikazioei buruzko berrikuntza. HORIZON-CL6-2021-GOVERNANCE-01-21. Horizon Europe enpresaren 6. klusterra (CL6). Elikadura, Bioekonomia, Baliabide naturalak eta Nekazaritza. Gobernantza berritzailearen helburua, Itun Berdea babesteko, ingurumen-behaketak eta irtenbide digitalak barne.
- [StandICT.eu](#). Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) estandarizazioa Europan. Horizonen koordinazio- eta laguntza-ekintza, ikuspegi neutral, errespetagarri, pragmatiko eta bidezko baterako, Europako eta elkartutako estatuen presentzia bultzatzeko IKTen normalizazioaren nazioarteko eszena. HORIZON-CL4-2022-RESILIENCE-01-21. Horizon Europe-ko 4. klusterra. Digitalizazioa, industria eta espazioa. Erresilientziaren atala: Europako hainbat erronka estrategiko biltzen ditu, kasu honetan digitalizazioarena.
- [Connect NEB – Co-Create NEB](#). Mugikortasuna. Ahalmen handieneko Connect (herritarren inplikazioaren ikuspegiarekin) eta Co-Create (espazio publikoaren sorkuntza parte-hartzailearekin) ekimenen proiektuak handitzea edo eskalatzeko. NEB edo Europako Bauhaus Berriaren filosofia hartzen duten proiektuak, sormena eta jasangarritasuna bateratzeko. EIT Teknologiaren Europako Institutuak eta



### 2023ko uztaila eta abuztua

haren KICek edo Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateek sustatutako ekimenak, sinergia estrategikoak sortzeko ikuspegiarekin. HORIZON-EIT-2023-25-Cross-KIC-Strategic-Synergies.

- **TARGET-X**. 5G eta 6G sare mugikorren teknologia berriak bizkortzeko EBk bultzatutako partzuergoa. Lehenetsuneko hainbat sektoretan aplika daitezkeen proiektuak dituzten ETE berritzaileentzako deialdia. HORIZON-JU-SNS-2022-STREAM-D-01-01. JU-SNSen edo sistema eta sare adimendunetarako enpresa bateratuan kokatzen da, D korrontean (stream D), ikuspegi bertikaleko proiektuetarako (sektoreko balio industrialeko kate oso baterako), A korrontearen (5G-rako), B korrontearen (6G-rako) eta C korrontearen (azpiegiturei buruzko esperimentazioetarako) osagarri gisa.
- **EEN2EIC**. SoE zigilua duten berritzaileen eta EIC Acceleratorreko berritzaileen arteko lankidetzak. HORIZON-EIC-2021-EEN-01-01. Bikaintasun-zigilua (SoE) duten “talde-lider” edo “tokiko-nodo” gisa kalifikatutako partzuergo .berritzaileen eta EICren (Berrikuntzaren Europako Kontseilua) Accelerator programako laguntzen onuradun diren arteko lankidetzak sustatzeko deialdia. EEN2EIC programaren esparruan, EIC eta EEN (Europako enpresa-sarea) arteko lankidetzari dagokionez.

**Merkatu Bateratuaren Programa (SMP)**. Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasunerako (COSME). ETE turistikoentzako deialdiak (SMP-COSME-2021-TOURSME-01).

- **STAR GROWTH**. Landa-turismoa eta ekoturismoa hazteko (growth) tresna eta jarduera iraunkorretarako ekimena.

**Europe Aid**. Munduko herrialdeetako gizatasun eta garapenerako laguntzetarako programa.

- **Asia eta Ozeano Barea. EuropeAid/176700/DD/ACT/KG**. Kalitatezko hezkuntza bidezkoagoa sustatzea.
- **Saharaz hegoaldeko Africa. EuropeAid/177579/DD/ACT/MW**. Baliabide Naturalen Basea eta bere Ekosistemak Kontserbatu, Leheneratu eta Birsortzea - Distritu Kontseiluen Partaidetza.
- **Kongoko Errepublika Demokratikoa. EuropeAid/177689/DH/ACT/CD**. Giza eskubideak babesten laguntzeko programa.
- **Bosnia eta Herzegovina – Montenegro. EuropeAid/177739/DH/ACT/Multi**. Bosnia eta Herzegovina – Montenegro arteko mugaz gaindiko programaren deialdia. EBra sartu aurreko tresnaren 3. atala (IPA III).
- **Eswatini. EuropeAid/177813/ID/ACT/SZ**. Trantsizio energetikorako katalizatzailea Eswatinin (antzinako Swazilandia).
- **Mexico. EuropeAid/177887/DD/ACT/MX**. Giza eskubideak babesten laguntzeko programa.
- **Txina. EuropeAid/178088/DD/ACT/CN**. Europa Globala gaikako programa: 2023ko deialdia, giza eskubideak eta demokrazia indartzeko.
- **Senegal. EuropeAid/178291/DD/ACT/SN**. Europar Batasunaren babesa haurren eskubideak abusuen aurrean babesteko Gizarte Zibileko Erakundeek ekimenei.



### 2023ko uztaila eta abuztua

- [\*\*Etiopia. EuropeAid/178357/DD/ACT/ET.\*\*](#) Gizarte Zibilerako Funtza eta zenbateko handiko beste laguntza osagarri batzuetarako deialdi irekia.

### Eskualdeen arteko berrikuntza-inbertsioen I-3 tresna.

- [\*\*HIGHFIVE\*\*](#) programa, elikagaien prozesatze-industriaren hazkunderako eta trantsizio berde eta digitalerako. I3-2021-INV1-MANU.

### Digital Europe Programa.

- [\*\*AI-ON-DEMAND.\*\*](#) Adimen artifizialeko teknologien erabilera mankomunatuako plataforma hedatzea. DIGITAL-2022-CLOUD-AI-B-03-AI-ON-DEMAND.
- [\*\*DIGITAL-2022-CYBER-02-NAT-COORDINATION.\*\*](#) Finlandian erregistratutako ETEentzako laguntza, zibersegurtasuneko berrikuntzak hartzeko. Lankidetzaz zibersegurtasuna koordinatzeko Finlandiako zentroarekin.

**Creative Europe Programme (CREA). Kultura eta lankidetzaz atala. Culture Helps / Kulturak** laguntzen du. Gerrak mugiarazitako Ukrainako sormen- eta kultura-sektoreari laguntzeko deialdiak. CREA-CULT-2023-COOP-UA.

- [\*\*Kulturaren bidez integratzeko lankidetzaz-bekak.\*\*](#)
- [\*\*Laguntza psikologikoa barne duten banakako laguntzak, eragindako sortzaileentzat.\*\*](#)

### Horizon Europe. Berrikuntzarako esparru-programa.

- [\*\*ECO-READY.\*\*](#) Zaintza- eta alerta-sistema goiztiarra denbora errealean, Europa osoko komunikazio-sare baten zati gisa, elikagaien segurtasuna bermatzeko. Living Lab sare bat ezartzeko deialdia (proiektu esperimentalak). Erabiltzaile-komunitateen eta elikadura-segurtasunean, biodibertsitatean edo klima-aldaketan aditu diren erakundeen arteko partzuergoak. Horizon Europearen 6. klusterra (CL6). Elikadura, Bioekonomia, Baliabide naturalak eta Nekazaritza. HORIZON-CL6-2022-CLIMATE-01-04.
- [\*\*RIS Barnerakuntza.\*\*](#) Aniztasun funtzionala duten pertsonak manufaktura-industrian sartzea. HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITMANUFACTURING. Fabrikazioko berrikuntzetan sektore horri laguntzeko programa, EITren RIS edo Eskualdeko Berrikuntza Eskemaren, Europako Teknologia Institutuaren Manufaktura atalaren, bere KICen (Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateak) eta EITren 2023-25 planaren esparruan. Eskualde Berrikuntzaren RIS Eskemak EBko eta inguruko herrialdeak hartzen ditu, aurreratuenak izan ezik.





### 2023ko uztaila eta abuztua

- **TFC. Teaching Factories on Deep Tech.** (Irakasten duten faktorien lehiaketa) goi-teknologiari buruz. Enpresentzako deialdia. TFCK industriaren eta hezkuntza-sektorearen arteko lankidetzarako hezkuntza-metodologia sustatzen du industria-berrikuntzak lortzeko. EIT Teknologiaren Europako Institutuaren programan, Manufaktura atalean eta KIC (Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateak) lankide direlarik, EITren 2023-25 planaren barne. HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITMANUFACTURING.
- **EITUM BP 23-25.** Berrikuntzako Proiektu Fokalizatuen Programa, garrantzi estrategikoa edo kritikoa duena EBrentzat eta EITrentzat, Teknologiaren Europako Institutuarentzat, Hiri Mugikortasuneko bere Atalarentzat eta KICentzat (Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateak), eta EITren atal honetako 2023-25 negozio-planarentzat. (EITUM BP 23-25). HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITURBANMOBILITY.
- **EMIL-2.** EMILen bigarren deialdia, Hedabideen Laborategiaren eta Murgiltzearen Proiektua, Horizon Europe berrikuntza-esparruaren eta I+G+Bko UKRI erakunde britainiarraren artean. HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-06. Horizon esparruko 4. klusterreko (CL4, digitalak, industrialak eta espazialak) teknologia digital sortu berrien eta humanizatzaileen atalen deialdia. Giza gorputzaren eta ingurunearen arteko interakzio teknologikoko proiektu/partzuergoetarako proposamenak: objektu adimendunak, errealitate areagotua edo birtuala, gorputz-jardueraren monitorizazioa, edo antzeko intereseko beste batzuk.
- **EUIPA.** 2023-2024 sariak, sektore publikoaren edo erantzukizun sozial korporatiboa duten erakundeen produktu eta zerbitzu erosketetan berrikuntza sustatzeari dagozkionak. HORIZON-EIC-2023-EUIPA-PRIZES-03 (-01 eta -02 kategoriak).
  - 1. kategoria: epe ertain eta luzerako ekintzak, estrategiak eta ekintza-planak saritzen ditu, berrikuntza-kontratazioko jardunbide eta irtenbide jasangarriak sortzeko.
  - 2. kategoria: "energia berderako" trantsiziokoak berariaz saritzen dira.
- **IN TRANSIT.** Partzuergo-proiektua. Ehungintzako, arlo aeroespazialeko eta eraikuntzako enpresa txiki eta ertainen erresilientzia indartzea, gizarte- eta enpresa-berrikuntzako sektore berdeago eta digitalagoetara igarotzeko. Horizon Europe-ko 4. klusterra. Digitalizazioa, industria eta espazioa. Erresilientziaren atala: Europako hainbat erronka estrategiko biltzen ditu. HORIZON-CL4-2022-RESILIENCE-01-26.

**NGI: Hurrengo belaunaldiko Internet.** Horizon esparruko 4. klusterreko (CL4, digitalak, industrialak eta espazialak) teknologia digital sortu berrien eta humanizatzaileen atalen deialdiak.

- **NGI Sargasso.** NGIren atala, EBk AEBetako eta Kanadako erakundeekin lankidetzan aritzeko, kredentzial digitalen teknologian zentratuta. HORIZON-CL4-2022-HUMAN-01-07.
- **NGIO Core.** Internet iraunkor, fidagarri eta jasangarri ireki baterako NGI programaren "nukleoa" den atala. HORIZON-CL4-2022-HUMAN-01-03.



### 2023ko uztaila eta abuztua

- **NGIO Entrust**. Datuen subiranotasun fidagarria duen Internet ardatz duen NGI programaren atala. HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-04.

### Merkatu Bakarraren Programa (SMP). Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna (COSME).

- **ECOTOURS**. ME/ETEEi (mikroenpresak eta ETEak) turismo zirkularrerako laguntza ematea. Tokiko komunitateak ahalduntzea, ekosistema turistikoko zirkular eta jasangarri baterako garapenerako laborategi bihurtuz. SMP-COSME-2021-TOURSME-01.
- **INGENIOUS**. Trantsizio digitalaren eta ekologikoaren erronka espezifikotarako laguntzak. Konponbide teknologiko eskuragarriak, garbiak eta eraginkorrak, negozio-eredu berriak garatzea, zerbitzuak, teknologia eta ekoizpen-lerroak berritzea, merkatu berriak irekitzea, etab. Hurrengo epea: 23.07.31. Klusterizazio-atala. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.

### Merkatu Bakarraren Programa (SMP). Kontsumoaren atala (CONS).

- **SMP-CONS-2023-ADR**. Laguntzak kontsumoko ADR (eztabaiden ebazpen alternatiboa) edo arbitrajea sustatzeko eta 2013/11/EU europar zuzentaraua sustatzen duten erakundeentzat, EBko estatuek izendatuak.

### Europe Aid. Herrialdeetako gizatasun eta garapen-laguntzetarako programa.

- Kamerun. **EuropeAid/178025/DD/ACT/CM**. Gobernantza onari laguntzea giza eskubideen eta demokraziaren arloetan.
- Hainbat herrialdetan. **EuropeAid/177680/DH/ACT/Multi**. Gizarte zibileko erakundeak indartzea.
- Hainbat herrialdetan. **EuropeAid/177973/DH/ACT/Multi**. Gizarte zibileko erakundeak indartzea.
- Hainbat herrialdetan. **EuropeAid/177680/DH/ACT/Multi**. Inklusibitatea bakean eta segurtasunean. Egonkortasuna eta gatazken prebentzioa.
- Kongoko Errepublika Demokratikoa. **EuropeAid/177689/DH/ACT/CD**. Giza eskubideak eta demokrazia babesteko programa.
- Dominikar Errepublika. **EuropeAid/177768/DD/ACT/DO**. Gizarte Zibilaren Programa Tematikoa (NDICI - CSO) eta Giza Eskubideak eta Demokrazia Programa Tematikoa (NDICI - HRD).
- Mexiko. **EuropeAid/177887/DD/ACT/MX**. Giza eskubideak eta demokrazia babesteko programa.
- Txile. **EuropeAid/177904/DD/ACT/CL**. Giza Eskubideen/Demokraziaren eta Gizarte Zibilaren Erakundeen Gaikako Programak.



### 2023ko uztaila eta abuztua

- Asia eta Ozeano Bareko eremua. [EuropeAid/178062/DD/ACT/UZ](#). Arau-esparrua sistematizatzea eta sinplifikatzea.
- Ipar Mazedonia. [EuropeAid/178565/DD/ACT/MK](#). EBren laguntza Ipar Mazedoniako Errepublikako gizarte zibilari eta komunikabide-erakundeei. 2022-2023, EBra Sartu Aurreko Tresnaren (IPA) esparruan.
- Ipar Mazedonia. [EuropeAid/178154/DD/ACT/MK](#). Prespa lakuaren eremuaren garapen iraunkorra. 2022-2023 EBra sartu aurreko tresnaren (IPA) landa-garapeneko atalaren esparruan.
- Mozambike. [EuropeAid/178205/DD/ACT/MZ](#). Gizarte zibila eta sektore pribatua erresilientziaren eta susperraldi ekonomikoaren alde Mozambikeko iparraldean.
- EBko Ekialdeko Elkartea (Armenia, Azerbaijan, Georgia, Moldavia eta Ukraina). [EuropeAid/178230/DH/ACT/Multi](#). Eskualdean gizarte zibileko erakundeek parte hartzeko eta gaitasunak garatzeko elkarte estrategikoak.
- Erdialdeko Amerika. [EuropeAid/178440/DD/ACT/Multi](#). Mesoamerikako Bost Baso Handietan zentratutako Ingurumen Defentsarako Mekanismoa.
- Uzbekistan. [EuropeAid/178592/DD/ACT/UZ](#). EBren laguntza gizarte zibileko erakundeei.
- Ginea-Bissau. [EuropeAid/178737/DD/ACT/GW](#). Gizarte zibileko erakundeei laguntza ematea, gobernantza onaren eta garapenaren eragile independente diren aldetik.

### Herritarrak, Berdintasuna, Eskubideak eta Balioak programa.

- **CERV-2023-CITIZENS-CIV**. Herritarrek eta ordezkari-erakundeek EBren bitzita demokratiko eta zibikoan parte har dezaten eta ekarpenak egin ditzaten sustatzea, Batasunaren jarduera-eremu guztietan beren ikuspuntuak jendaurrean ezagutaraziz eta trukatur. Hurrengo epea: 2023.09.05.

**PPPA**. Proiektu pilotuak eta prestakuntza-ekintzak (EBko finantzaketa-programen esplorazio-fasea).

- **PPPA**. Babes- edo arrisku-egoeran dauden ikertzaileentzako beken Europako programa. Hurrengo epea: 2023.09.07. PPPA-RI-2023-FELLOWSHIPS-RR.

**Europe Aid**. Hirugarren herrialdeetako laguntza humanitarioko eta garapenerako programa.

- **Web Europe Aid**.
  - Ginea. Giza eskubideak eta demokrazia eta gizarte zibileko erakundeak. EuropeAid/177837/DD/ACT/GN. Hurrengo epea: 2023.09.04..



### 2023ko uztaila eta abuztua

- Jordania. EBren laguntza zibersegurtasuna hobetzeko. EuropeAid/178636/ID/ACT/JO. Hurrengo epea: 2023.09.07.

### Europa Sortzailea programa (CREA). Kultura eta lankidetzatza atala.

- **ZMINA Rebuilding**. Ukrainako sormen-, kultura- eta arte-sektorea berreraikitzea, erakusketetara bideratuta. Ukraina, Eslovakia eta Suediako 3 entitatek zuzendutako laguntzak. CREA-CULT-2023-COOP-UA. Hurrengo epea: 2023.09.06.

### Merkatu Bakarraren Programa (SMP). Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna (COSME). SMP-COSME-2021-CLUSTER-01. Klusterizazio-deialdiak.

- **LEVIATAD**. ETEen berrikuntza eta nazioartekotzea babestea defentsaren sektorean. Hurrengo epea: 2023.09.04.
- **AIBC EUROCLUSTERS**. ETEei laguntzea zerbitzuak aktibatzearekin, produktuak garatzen laguntzearekin eta haien trantsizio bikoitza indartzearekin (digitala eta berdea) lotutako prestakuntza-jardueretan eta digitalizazioaren plangintzan. AI & BC (adimen artifiziala eta bloke-katea edo blockchain) teknologietan lan egiten duten fabrikazioko, mugikortasuneko, logistikako eta energiako sektoreak. Hurrengo epea: 2023.09.05.

### CEF. Europa konektatzeko mekanismoa.

- **CEF-E-2023-PCI-WORKS** (obretarako dirulaguntzak) y **CEF-E-2023-PCI-STUDIES** (azterketak egiteko dirulaguntzak) elektrizitate, gas, karbono dioxido eta Smart Grids sareetan (azpiegitura edo konexio sare adimendunak). Hurrengo epea: 2023.09.05.

### Europako Parlamentua. Komunikazio-ekintzetarako dirulaguntzak.

- **EP-COMM-SUBV-2024-LOCAL-EYE**. Europako Gazteriaren 2 Ekitaldi (EYE) antolatzea 2024an. Hurrengo epea: 2023.09.05.

### LIFE. Ingurumenerako eta klimaren aldeko ekintzarako programa.

- **LIFE-2023-STRAT-CLIMA-SIP-two-stage**. Proiektu Integratu Estrategikoak (SIP). - Ekintza Klimatikoa. Hurrengo epea: 2023.09.05.
- **LIFE-2023-STRAT-ENV-SIP-two-stage**. Proiektu Integratu Estrategikoak (SIP). - Ingurumena. Hurrengo epea: 2023.09.05.



### 2023ko uztaila eta abuztua

- **LIFE-2023-SAP-ENV-ENVIRONMENT.** Ekintza Estandarreko Proiektuak (SAP). Ekonomia zirkularra, hondakinen baliabideak, airea, ura, lurzorua, zarata, substantzia kimikoak edo Europako Bauhaus Berria ekimen sortzaileari eta kultura jasangarriari lotutako ekintzak,. Hurrengo epea: 2023.09.06.
- **LIFE-2023-SAP-NAT-GOV.** "Naturaren gobernanzarako" SAP proiektuak. Hurrengo epea: 2023.09.06.
- **LIFE-2023-SAP-NAT-NATURE.** Naturari eta biodibertsitateari buruzko SAP proiektuak. Hurrengo epea: 2023.09.06.
- **LIFE-2023-SAP-ENV-GOV.** "Ingurumen-gobernanzarako" SAP proiektuak. Hurrengo epea: 2023.09.06.
- **LIFE-2023-PLP-Bauhaus-Phoenix-Emerald.** PLP motako proiektuak (politiken eta legeriaren lehenetsunetarako), Bauhaus, Phoenix eta Emerald (Esmeralda sarea) ekimenei laguntzeko. Phoenixek karbono dioxidoa balorizatzeko teknologiak errazten ditu. Esmeralda sarea Kontserbazio Interes Berezikoko Eremuen sare bat da, Europako basoko landaretza eta abereak eta bertako habitat naturalak kontserbatzeko. Hurrengo epea: 2023.09.07.
- **LIFE-2023-PLP-NAT-ENV.** Naturarako, biodibertsitatearako, ekonomia zirkularerako eta bizi-kalitatearako ingurumen-ikuspegiko PLP motako proiektuak. Hurrengo epea: 2023.09.07.
- **LIFE-2023-PLP-ENER.** Ekodiseinuko edo etiketatze energetikoko politika ezartzeko PLP motako proiektuak. Hurrengo epea: 2023.09.07.
- **LIFE-2023-PLP-CLIMA.** Ibilgailuak energia-sarean(V2G) integratzeko PLP motako proiektuak: energia etxean edo eraikinean biltegitratzeko pizgarrien estatu-esparruak garatzea, eta energia-komunitateen edo estatuko sareetan garatzea. Hurrengo epea: 2023.09.07.
- **LIFE-2023-TA-PP-CLIMA-SIP.** Klima-aldaketari lotutako SIP proiektuak (integratu estrategikoak) prestatzeko aholkularitza teknikorako laguntzak. Hurrengo epea: 2023.09.07.
- **LIFE-2023-TA-PP-ENV-SIP.** Ingurumenari lotutako SIP proiektuak (integratu estrategikoak) prestatzeko aholkularitza teknikorako laguntzak. Hurrengo epea: 2023.09.07.
- **LIFE-2023-TA-PP-NAT-SNAP.** SNAP proiektuak prestatzeko aholkularitza teknikorako laguntzak (Naturari buruzko estrategikoak). Hurrengo epea: 2023.09.07.
- **LIFE-2023-TA-R-NAT-ENV.** Naturaren, biodibertsitatearen, ekonomia zirkularren eta bizi-kalitatearen gaietan erreplikazio-faserako aholkularitza teknikorako laguntzak (proiektu pilotu arrakastatsuetan oinarrituta). Hurrengo epea: 2023.09.07.

### Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **GreenSME.** ETEen trantsizio ekologikorako programa berria. Horizon esparruko 4. klusterraren laguntza (digitalizazioa, industria eta espazioa), "Erresilientzia" atalean, aurrez definitutako hainbat arlo estrategikotara bideratuta. HORIZON-CL4-2021-RESILIENCE-01-29. Hurrengo epea: 2023.09.06.



### 2023ko uztaila eta abuztua

- **EBRAINS.** Zerbitzu digitalak inplementatzea, osasunerako neurozientzian eta garunean oinarritutako teknologian ikerketa sustatzeko. Horizon esparruko zerbitzuetarako azpiegituren atala. HORIZON-INFRA-2022-SERV-B-01-01. Hurrengo epea: 2023.09.07.
- **IMAGINE-B5G.** Esperimentu bertikaletarako eta plataforma-hedapenetarako programa berria mugikorren teknologiarako (5G). HORIZON-JU-SNS-2022-STREAM-D-01-01. JU-SNS edo sistema eta sare adimendunetarako erronka bateratuan kokatzen da, D korrontean (stream D), perspektiba bertikala duten proiektuei eskainia (sektoreko balio industrialeko kate oso batera bideratuak), A (5G-ri bideratua), B (6G-ri bideratua) eta C (azpiegiturei buruzko esperimenzioetara bideratua) korronteen osagarri dena. Hurrengo epea: 2023.09.01.
- **BY-COVID.** Estatuko eta eskualdeko SARS-CoV-2 birusaren datuen hub-ak (nodoak) ezartzeko laguntza. Horizon esparruaren barruko larrialdietarako azpiegituren atala. HORIZON-INFRA-2021-EMERGENCY-01. Hurrengo epea: 2023.09.01.
- **Erresidentziak, S+T+ARTS ReSilence-02.** Etorkizuneko hirietako soinu-paisaia diseinatzeko, ReSilence proiektuak arteak S+T+ARTSen espirituan bultzatutako teknologien garapena babesten du, artisten, arkitektoen, hiri-diseinatzaileen, zientzialarien, ingeniarien eta ikertzaileen lankidetzaren bidez. HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-21. Horizonen "HUMAN" atala: giza ahalduntzerako teknologien helburuaren I+G. Hurrengo epea: 2023.09.01.
- **BoostUp! Europe 2023.** BoostUp (bultzatu). Europako startup helduentzako deialdia, 5 industria-erronka komertzial konpontzeko, garraioaren sektoreko 5 bazkidek zabaldua. Europako Teknologia Institutuaren (EIT) eta haren berrikuntza- eta ezagutza-komunitateen (KIC) manufaktura (fabrikazioa) -dibisioaren deialdia. HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITMANUFACTURING. Hurrengo epea: 2023.09.01.
- **HORIZON-MISS-2023-CIT-02-01.** Ukrainako hiriak Hiri Adimendunen eta Klimatikoki Neutralen Misioari lotzea (Horizon esparruaren misio estrategikoen barruan). Hurrengo epea: 2023.09.06.

Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa. (CCAM elkarteak: Mugikortasun Konektatua, Kooperatiba eta Automatizatua).

- **HORIZON-CL5-2023-D6-01.** Horizongo 5. klusterraren deialdiak: klima, energia eta mugikortasuna. Hurrengo epea: 2023.09.05. D6 helburua: Garraio seguruko, erresilienteko eta mugikortasun adimenduneko zerbitzuak bidaiarientzat eta salgaiarientzat.
  - 01: Ibilgailuen teknologien eta irtenbideen erabiltzailean oinarritutako garapena, gidatze esperientzia optimizatzeko eta inklusioa bermatzeko -02: CCAM sistemak garatzeko, entrenatzeko, proba birtuala egiteko eta baliozkotzeko agertokiak sortzea.
  - 02: CCAM sistemak garatzeko, entrenatzeko, proba birtuala egiteko eta baliozkotzeko agertokiak sortzea.



### 2023ko uztaila eta abuztua

- 03: Azpiegiturak egokitutako irtenbideak, diseinu operatiboko eremuen jarraitutasuna edo hedapena hobetzeko.
- 04: Europako aniztasuna integratzea CCAM soluzioen diseinuan, garapenean eta ezarpenean, mugikortasunean ekitatea bultzatzeko.
- 05: CCAM sistemak enpleguan eta hezkuntzan dituzten ondorioak, CCAMen garapenarekin bat datozen trebetasun-planak eta enplegua hazteko aurretiatzko eskakizunak.
- 06. Txikizkariak, kontsumitzaileak eta tokiko agintariak egindako zero jaulkipenen karga entregatzeko eta itzultzeko eta merkataritza elektronikorako aukerak.
- 07. Karga multimodalaren garraioari laguntzeko automatizazio operatiboa.
- 08. Ingurumen- eta berotegi-efektuko gas-isuriaren faktoreak, etorkizunerako eta garraio- eta logistika-eragiketen isuriak kontabilizatzeko prestatuak.
- 09. Klimarekiko erresistenteak diren itsas portuak eta portu seguruak.
- 10. Azpiegituren segurtasun hobea bigarren mailako eta hiriko landa-bideetan, monitorizazioko eta mantentze-lanetako soluzio moldagarrien konbinazioaren bidez.
- 11. Abiazioaren segurtasuna: ziurgabetasuna kuantifikatzea segurtasunerako eta arriskuen kudeaketarako.
- 12. Lesio larriak eta igarotze-istripuen epe luzeko ondorioak murrizteko modu berriak.
- 13. Garraioa ikerketaren arloko dibulgazio-ekitaldiei laguntzea.

### Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa. CL5-D3 helburua: energia-sareak eta -sistemak.

- **HORIZON-CL5-2023-D3-02.** Horizongo 5. klusterraren deialdiak: klima, energia eta mugikortasuna. Hurrengo epea: 2023.09.05. D3 helburua: energia-sareak eta -sistemak.
  - 01. Biomasa eta/edo CHPko beroaren garapena (beroaren eta elektrizitatearen kogenerazioa) emisio ia nuluekin, karbonoaren harrapaketa barne..
  - 02. Energia termikoaren biltegitratze berria CSPrentzat (eguzki-energia kontzentratua).
  - 03. Kostu txikiko eguzki-osagai eta -sistema termikoen fabrikazioa industrialia.
  - 04. Bero-ponpetarako osagai eta konfigurazio berritzaileak.
  - 05. Baliabide geotermikoetarako esplorazio-teknologia aurreratuak ingurune geologiko ugarietan.
  - 06. Elektrizitate geotermikoaren erabilera adimenduna eta berokuntza eta hoztea energia-sisteman.
  - 07. Hurrengo belaunaldiko bioerregaien teknologia aurreratuak garatzea.
  - 08. Itsas abiazio eta/edo garraioa erregai aurreratu etarako eguzki-erregaia ekoizteko eta arazteko mikroalgak eta/edo teknologia zuzenak garatzea.
  - 09. Birgaitze hidroelektriko iraunkorren erakustaldia.
  - 10. Olatu-energiako gailuetarako kontrol- eta indar-sistema berritzaileak garatzea.
  - 11. Silizio kristalinoaren teknologiarako kontzeptu aurreratuak.
  - 12. Perovskitako zelulak eta eguzki-moduluak.



### 2023ko uztaila eta abuztua

- 13. Sistema fotovoltaikoen eragiketa, errendimendua eta mantentze-lanak.
- 14. Biki digitala energia eolikoaren eskariaren arabera energia-ekoizpena aurreikusteko.
- 15. Teknologia kritikoak bizitza erabilgarria hobetzeko, modu eraginkorren desegiteko eta itsasoko eta lurreko energia eolikoko sistemen zirkulartasuna handitzeko.
- 16. Trantsizio berdea eta energiako sarbidea azkartzea Afrikan.

**Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.** Built4People ekimen asoziatiboaren hainbat deialdi, kalitate handiko, karbono gutxiko, energian eta baliabideetan eraginkorra den ingurune eraiki baterako.

- **HORIZON-CL5-2023-D4-02.** Horizongo 5. klusterraren deialdiak: klima, energia eta mugikortasuna. Hurrengo epea: 2023.09.05. D4 helburua: trantsizio energetikoko industria-eraikinak eta -instalazioak. Built4People ekimen asoziatiboaren hainbat deialdi, kalitate handiko, karbono gutxiko, energian eta baliabideetan eraginkorra den ingurune eraiki baterako.
  - 01. Eraikinak eta eraikin-multzoak kudeatzeko bizi-zikloaren datuen erabilera berritzaileak.
  - 02. Eraikin kalteberak eta pertsonengan oinarritutako ingurune eraikiak identifikatzeko soluzioak, eta haien erresilientzia hobetzeko gertakari disruptiboetan eta giro aldakorren aldatutako baldintzetan.
  - 03. Berrikuntza teknologikoaren, sozialaren eta behetik gorako politiken bidez eraikitako ingurunea deskarbonizatzeko bideak erakustea, berrikuntza-irtenbide iraunkor integratu eta egokitzaileetarako
  - 04. Tokiko balio-kateekin eraikitako inguruneak eraikitzeko eta berritzeko berrikuntza azkartzea eta sustatzea
  - 05. Ingurune eraiki irisgarri eta inklusibo bat sortzen laguntzea.

**Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.** Batt4EU (EBrako bateria berritzaileak) elkarte-ekimenaren hainbat deialdi.

- **HORIZON-CL5-2023-D2-01.** Horizongo 5. klusterraren deialdiak: klima, energia eta mugikortasuna. Hurrengo epea: 2023.09.05. D2 helburua: energia-ekoizpena (bateriak eta beste metodo batzuk). Batt4EU (EBrako bateria berritzaileak) elkarte-ekimenaren hainbat deialdi.
  - 01. Gelaxkak eta material aurreratuak garatzea, mugikortasun-aplikazioetarako Gen4 egoera solidoko bateriak eskala handian ekoiztea ahalbidetzen dutenak.
  - 02. Litio Gen 3 ioi-baterietarako segurtasun-material hobetuak garatzeko ikuspegi berriak mugikortasun-aplikazioetarako.
  - 03. Pasaporte digital bat sortzea baterien materialak arakatzeko, baterien errendimendua eta bizitza baliagarria optimizatzeko, birziklapena baliozkotzeko eta datu-trukean oinarritutako merkataritza-eredu berri bat sustatzeko.

***“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea***